

a u z o z a u z o

altza

Auzo elkarte berria Larratxon

.....

Auzokide ororen defendatzaile izateko sortu da "Osteguna"

arratxon «Osteguna» Auzo Elkarte sortu da.

Historia eginez, gogora genezake 1980. urtera arte Auzo Elkarte bat bazegoela Larratxon, auzokideek beharrezko ikusten bait zuten. Gero Auzo Elkarte hau desagertu egin zen, nekea, laguntzarik eza eta arazoak zinegotzien eskuetan utzi izana, besteak beste, zirela medio.

Trafiko arazoak

Auzoa handituz joan den neurrian, aparkaleku eta trafiko arazoak larriagotzen joan dira. Aurreko auzo elkarte desagertu zela hamar urte pasa ondoren, 1993.enean, zenbait auzokide biltzen hasi ziren arazo hauei aurre egiteko asmoz. Honela, hainbat ekintza egin dituzte bere auzokide hauek, asanbladak, firmen bilketa, trafikoa gelditzea etab.

Eraketa ofiziala

Behar hauei erantzuteko sortzen da Auzo Elkarteak, auzokideen helburuak lortu nahi ditu eta era guztietako jendez osatua dago.

Legezko urratsak eman ondoren 1994ko apirilean sortu zen ofizialki Osteguna Auzo Elkarte, 4 hilabetez ostegunero egindako asanblada eta mobilizazioak sinbolizatzen dituena.

Oraingoz helburuak nahiko xumeak dira: auzokide gehienengana hurbiltzea, keak eta proposamenak biltzea eta instituzioetan bideratzea errealitate bihur daitezten.

Era berean, hainbat eremutan (kultura, aisia, emakumea, kirola...) lan egiten duten taldeen erreferentzi puntua izan nahi



Roxaíl Fernandez

Larratxok populazio zabalkunde handia izan du urte gutxitan. Eraikuntza erraldoi asko egin da eta arazo ugari sortu ere bai, trafiko arazoak bereziki.

dute, arazoak konpontzeko bide egokiena koordinazioa dela uste baitute.


Bazkideak lortzeko kanpaina hasi dute kuota minimo baten truke (hilero 200 pta) paperak, fotokopiak...ordaindu ahal izateko.

Gogoratu Auzo elkarte ostegunero biltzen dela arratsaldeko 7.30etan parrokiak dituen lokaletan, honen babesa eskertzen dutelarik.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA:1391267)

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa